

ETXEBARRI 3D

E3Dk, Etxebarriko Udalarekin batera, SAN ANTONIOKO (ETXEBARRI) X-TREME LASTERKETAREN 4. edizioa antolatu du, eta 2015ko abenduaren 22an izango da. SAN ANTONIOKO (ETXEBARRI) X-TREME LASTERKETAk hiru proba izango ditu; 11km-ko mendi-martxa eta 1,5 km-ko famili mendi lasterketa. 12,9 km-ko mendi-lasterketa eta 8 km-ko canicrossa.

Mendi-martxa eta famili mendi lasterketa ez dira lehiatzekoak, parte hartu nahi duten guztientzat daude zabalik, adina kontuan hartu gabe.

ORDUTEGIAK:

11:00. CANICROSSAREN IRTEERA

11:45. FAMILI MENDI LASTEKETA IRTEERA

12:00. X-TREME LASTERKETAREN IRTEERA

12:05. MENDI-MARTXAREN IRTEERA

2015KO SAN ANTONIOKO (ETXEBARRI) X-TREME LASTERKETAREN ARAUTEGIA

1.- INSKRIPZIOA:

Inskripzioak www.sailkapenak.com web orriaren bitartez egingo dira, 2015ko urriaren 1etik 2015ko azaroaren 21arte. Parte-hartzaileen kopuruan muga ezarriko da: 500 korrikalari.

Inskripzio Kuotaren prezioa: 7 € parte-hartzaile guztientzat. Etxebarrin erroldatuta daudenek 5 € ordainduko dituzte.

Inskripzioa proba egunean egiten bada, 15 € ordainduko da. Etxebarrin erroldatuta daudenek 5 € ordainduko dituzte.

Inskripzioak honakoak hartzen ditu barne:

- ibilaldian parte hartzea
- istripu-asegurua
- erantzukizun zibileko aseguru
- lasterketaren oroigarria
- janari-edari postuak
- laguntza medikoa
- dutxa zerbitzua Etxebarriko udal kiroldegian, helmugan bertan.

2.- DORTSALAK

Dortsalak Etxebarriko udal kiroldegian hartu ahal izango dira lasterketa hasi baino ordu erdi lehenagora arte.

Dortsala paparrean eramango da, ondo ikusteko moduan, antolakuntzak banatuko dituen kateorratzekin lotuta, tolestu gabe, eta publizitatea aldatu eta ezkutatu gabe.

3. KATEGORIAK:

Bi kategoria egongo dira.

- EMAKUMEZKOEN ABSOLUTUA
- GIZONEZKOEN ABSOLUTUA

Herriko parte-hartzaileen sailkapena ere emango da, gizonezkoak zein emakumezkoak.

4.- SARIAK

Sariak hartzeko, sari-banaketan egon beharko da, eta hauek izango dira:

- 1. sailkatua gizonezkoetan: € + garaikurra
- 2. sailkatua gizonezkoetan: € + garaikurra
- 3. sailkatua gizonezkoetan: € + garaikurra
- 1. sailkatua emakumezkoetan: € + garaikurra
- 2. sailkatua emakumezkoetan: € + garaikurra
- 3. sailkatua emakumezkoetan: € + garaikurra

Garaikurrak egongo dira herriko lehenengo 3 sailkatuentzat ere, gizonezko nahiz emakumezkoentzat.

5.- IBILBIDEA

Antolakuntzak ibilbidea aldatu egin dezake, beharrezkoa izango balitz.

IBILBIDEA:



6.- SEGURTASUNA.

Proba honek izaera herrikoa du, hau da, ez da lizentziarik behar parte hartzeko. Herri-lasterketa denez, antolakuntzak ez ditu bere gain hartuko korrikalariek bertan parte hartzeagatik izan ditzaketen osasun arazoak. Horregatik, arduraz jokatzeko eskatzen diegu korrikalariei, ETA AURRETIK MEDIKU AZTERKETA EGIN DEZATELA.

Antolakuntzak jende espezializatua jarriko du arazoak egon daitezkeen ibilbideko toki batzuetan.

Zaintzaile horiek behar bezala identifikatuta egongo dira, eta kasu egin beharko zaio haiek esandakoari.

Medikuak eta anbulantziak egongo dira ibilbideko zenbait puntu estrategikotan, beharrezkoa balitz esku hartzeko.

Ibilbideko 5. km-an eta helmuga inguruan.

Medikuak, albaitariak edo lasterketako arduradunek lehiaketatik kanpo utzi dezakete korrikalaria, nekeagatik edo lasterketan jarraitzeko baldintzarik ez duelako, gaitasun fisikoak edo teknikoak murriztuta dauzkala uste badute.

7. IRTEERA ETA ORDUTEGIAK

Irteera Etxebarriko udal kiroldegian izango da eguerdiko 12:00etan.

Antolakuntzak ibilbidea aldatu dezake, beharrezkoa dela uste badu.

8. JANARI ETA EDARI POSTUAK

Janari-edari postu bat egongo da, Santa Marinako bide ondoan dagoen merenderoan (5.75 km-an gutxi gorabehera).

Edalontziak lekuan bertan utzi beharko dira, ez bidean zehar botata. Ez bota zaborrik, horretarako prestatuta dauden lekuetatik kanpo. Arau hori betetzen ez bada, antolatzaileek deskalifikatu egin dezakete araua hautsi duena.

9.- SAILKAPENAK

Probako sailkapenak www.sailkapenak.com web orrian jarriko dira hurrengo egunean.

10.- ARROPAK GORDETZEKO

ERABILI EZAZU GARRAIO PUBLIKOA. Etxebarrik herriko lotura-autobus urdin bat dauka, metroko irteeratik abiatuta herri osoan zehar ibiltzen dena. Autobus hori udal kiroldegiraino igotzen da, irteera eta helmuga dagoen lekuraino, hain zuzen. KONTUAN HARTU LASTERKETA ETXEBARRIKO SAN ANTONIO AUZOAN DELA ETA AUZO HORI 634 ERREPIDE NAZIONALAK BEREIZTEN DUELA ETXEBARRITIK. Antolakuntzak arropak gordetzeko doako zerbitzua prestatuko du parte-hartzaile guztientzat. Antolakuntzak ez du erantzukizunik izango arropak gordetzeko zerbitzu horretan galdu litekeen materialaren gainean.

GPS KOORDENATUAK

Latitudea: 43.24990435493523

Longitudea: -2.8828850353606867

11.- PARTE HARTZAILEEN ERANTZUKIZUNAK

Antolakuntzak ez du erantzukizunik izango parte-hartzaileek edo materialek izan ditzaketen kalteak direla-eta egin daitezkeen erreklamazio eta eskarien aurrean, galdu, hondatu edo aldentu baldin badira.

Ibilaldi honetan izena eman dutenek beren borondatez eta bere ardurapean hartzen dute parte lehiaketa honetan.

Beraz, uko egiten diote erakunde antolatzailea, laguntzaileak, babesleak, eta gainerako partaideak salatzeari, eta korrikalariekin edo haien oinordekoekin izan litekeen erantzukizun zibil orotatik libre eta salbuetsita utziko dituzte.

12.- DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURA ETA HELBURUA

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, honakoa jakinarazi behar dizugu: inskripzio-inprimakia betetzean emandako datu pertsonalak E3Dren (aurrerantzean "antolakuntza") ardurapean dagoen fitxategi batean gordeko dira. Fitxategi hori helburu hauetarako erabiliko da: kirol-proba antolatzeko, parte-hartzaileen inskripzioa egiteko, dortsalen banaketa kudeatzeko, korrikalarien aseguruak kudeatzeko, egindako markak komunikabideetan zabaltzeko, parte-hartzaileen argazkiak eta irudiak komunikabideetan argitaratzeko, eta, oro har, kirol-ekitaldi bat kudeatzearekin eta antolatzearekin zerikusia duten helburuetarako.

Zure kontakturako datuak epemugarik gabe gordeko dira eta probaren babesleei laga ahalko zaizkie, antolakuntzak edo hirugarren batzuek prestatutako kirol-ekitaldiei buruzko informazioa bidaltzeko, edota kirol-probaren antolatzaileek edo babesleek eskaintzen dituzten produktuen nahiz zerbitzuen berri emateko. Bidalketa horiek ohiko bideetatik edo baliabide elektronikoz egin daitezke, eta, hala nahi izanez gero, zure datu pertsonalak ezeztatzeko eskubidea izango duzu.

13. INGURUNEAREKIKO ARDURA

Parte-hartzaile guztiei eskatzen diegu ingurunearekin arduratsu jokatzeko, batez ere janari-edari postuak dauden lekuetan, edalontziak, botilak eta abar edonon bota gabe, lasterketa hau ingurune natural batean egingo baita.

14.- ALDAKETAK

Antolakuntzak arautegi hau aldatu, zuzendu edo hobetu egin dezake edozein unetan.

Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik eta inskripzioa ordaindu izanagatik, araudi hau betetzeko konpromisoa hartzen dute.

ANTOLATZAILEEN ESKU EZ DAUDEN ARRAZOIAK DIRELA MEDIO (eguraldiagatik, Agintari eskudunek hala aginduta, edo beste arrazoi batzuengatik), PROBA BERTAN BEHERA GELDITUKO BALITZ, ez da inskripzio-kuota itzultzeko eskubiderik izango.